

2020-21 ikasturtea

## HHko Guraso Batzordea: 3. buletina (2020.12.14)

HHko Guraso Batzordearen 2020-2021 ikasturteko hirugarren bileran ondorengo gaiak landu dira.

### **2021-22 ikasturteko matrikulazio-kanpaina: gurasoentzako proposamena**

Leire Agirrezabala, Ikastolako komunikazio arduraduna, etorri da bilerara datorren ikasturteko matrikulazio-kanpaina aurkeztera eta horretan laguntzeko gurasoentzako proposamen batekin: lekukotasun-bideoak egitea proposatu du, bakoitzak egokienak iruditzen zaizkion Ikastolaren baloreak eta indarguneak azpimarratuz.

Herriko zenbait auzotatik haurrik matrikulatzen ez denez, auzo-elkarteetan edo auzo-elkarteen zerbait egin daitekeen aztertzen ari da Ikastola. Elkarreetako kide diren gurasoen laguntza eskatu da lan horretarako.

### **Jarraipen Batzordearen deskargua: Lino Berria**

Linoko eraikina orain, ikasturte honetan, berritzeak ez du ahobatezko babesik gurasoen aldetik. Linoko eraikina eraberritzea Ikastolako bideragarritasun batzordea egiten ari den azterketaren baitan ere egon daiteke.

### **Guraso ordezkariak: ikasturteko ikasgeletako ordezkarien zerrenda**

Gela batzuetan oraindik ez dago ordezkariarik. Orain bizpahiru ikasturte erabaki zen hori gertatuz gero zozketaz aukeratuko zirela ordezkari horiek. Aukera hori ez dela egokia uste da. Beraz, kontua bideratzeko, guraso-bileretarako egindako idatziari buelta sakonagoa ematea erabaki da.

### **COVID-19: egoeraren errebasoa**

HH4ko bizikidetza-talde batek bigarren etxealdia egin behar izan du. Guraso batzuek etxealdi garaiko bideoen dinamika hobetzeko aukerarik egon daitekeen aipatu dute. Proposamenen bat ere egin da.

### **San Tomas 2020**

Ikastolako ordezkariak aurten baserritar jantzita ez etortzea erabaki dute eta guraso ordezkari batzuk ez daude ados horrekin. Hurrengo batean, erabakia hartu aurretik gurasoekin kontrastea egitea eskatuko da.

### **Ikasle izandakoen programa**

Guraso Batzordeko guraso batek ikasle izandakoen donazioak jasotzeko aukeraren proposamena egin du. Unibertsitateetan egiten dutenaren antzera, urtean behin eskatzen da eta jasotako dirua zertara bideratu den edo bideratuko den esan daiteke.

Curso 2020-21

## Consejo de Madres y Padres de HH: boletín nº3 (14.12.2020)

En la tercera reunión de la Comisión de Madres y Padres de HH del curso 2020-2021 se han tratado los siguientes temas.

### Campaña de matriculación 2021-22: propuesta para las familias

Leire Agirrezabala, responsable de comunicación de la Ikastola, ha acudido a la reunión para presentar la campaña de matriculación del curso que viene y con una propuesta para padres y madres de apoyo a la misma: propone la realización de videos testimoniales, haciendo hincapié en los valores y fortalezas de la Ikastola que cada uno considere más oportunos.

Dado que no se matriculan niños y niñas de algunos barrios de la localidad, la Ikastola está estudiando si se puede hacer algo en y/o con las asociaciones de vecinos. Para ello se ha solicitado la colaboración de los padres y madres que participan en las mismas.

### Descargo de la Comisión de Seguimiento: Lino Berria

Reformar el edificio de Lino ahora, este curso, no tiene apoyo unánime por parte de los padres y madres. La reforma del edificio de Lino puede estar condicionada también por el estudio que está realizando la comisión de viabilidad de la Ikastola.

### Representantes de madres y padres: lista de los y las representantes de las aulas de este curso

En algunas aulas todavía no hay representantes. Hace unos dos o tres años se acordó que, en caso de estar en esa situación, se elegirían por sorteo. Esta opción no se considera adecuada. Por lo tanto, se ha decidido dar una vuelta más al escrito realizado para las reuniones generales de padres y madres.

### COVID-19: repaso de la situación

Un grupo de convivencia de HH4 se ha visto obligado a realizar su segunda cuarentena. Algunos padres y madres mencionan la posibilidad de mejorar la dinámica de los videos durante los días de confinamiento. Se ha realizado alguna propuesta para ello.

### Santo Tomás 2020

El equipo directivo ha decidido que este año las y los niños no vengán vestidos de baserritarras y algunas madres y padres delegados no están de acuerdo con ello. Para las próximas ocasiones, se solicitará contrastar con las familias antes de tomar la decisión.

### Programa de ex-alumnos y alumnas

Un representante de la Comisión de Padres y Madres propone la posibilidad de recibir donaciones de antiguos alumnos y alumnas. Al igual que en las universidades, se solicita una vez al año y se puede decir a qué se ha destinado o se destinará el dinero recaudado.